

Romastea sortu da, ijito-herriari balioa emateko kultura-proposamena

Ekimena apirilaren 8an hasiko da, Ijito Herriaren Nazioarteko Egunean, eta zazpi eguneko iraupena izango du eta egun bakoitzean erromani-kultura garaikidearen hainbat alderdi jorratuko dira.

Datorren apirilaren 8an, Ijito Herriaren Nazioarteko Egunean, Romastearen lehen edizioa hasiko da. Kultura proposamen horren helburua da erromani-kultura garaikidea ikustaraztea, egungo ikuspegi ireki batetik.

AGIFUGI Gipuzkoako Etorkezunaren aldeko Ijito Elkartek eta Beti I tchatchipen elkarteak bultzatuta, IJITON kultura-proiektuaren esparruan, komunitatearen eta herritarren arteko lotura indartzeko asmoz sortu zen proposamena, Donostia elkarrizketa kulturalerako gune gisa sendotuz.

Zazpi eguneko programazio jarraitu bat izango du Romasteak, eta erromani-kultura garaikidearen hainbat dimentsio jorratuko dira bertan. Ohiko programazio tematiko bat izan ordez, egiturazko logika batean oinarrituta egin da proposamena, ijitoen ekoizpen kulturalaren inguruan kontakizun propio eta ebolutibo bat sortzea ahalbidetzeko.

Aniztasuneko eta Inklusioeko zinegotzi Iñigo García Villanuevak nabarmendu duenez, "Romastearen helburua da ijito-kultura jendearengana hurbiltzea, gehiago eta hobeto ezagutu dadin. Partekatze, ikasteko eta aurreiritziak hausteko aukera bat da, elementu xume batetik abiatuta, kulturatik, alegia".

2026ko programazioa: zazpi egun, zazpi dimentsio

Romastearen lehen edizioa erromani-kultura garaikidearen hainbat dimentsio jorratzen dituzten jardueren sekuentzia baten bidez egituratzen da:

Asteazkena, apirilak 8 | Centre Social Denetzat

Programazioarekin hasteko, harrera instituzionala egingo da Hendaiaiko Centre Denetzat zentroan. Urteko manifestua irakurriko da eta ijito-herriaren banderaren entrega sinbolikoa egingo da. Ekitaldiari amaiera emateko, Bidasoa ibaian erritu tradizional bat egingo da: loreak ibaira botako dira, memoria eta aintzatespen kolektiboaren adierazpen gisa.

Osteguna, apirilak 9 | Cristina Enea Fundazioa | 17:30

Ostegunean, hilak 9, Klima ta Memoria jarduera egingo da, hurrei zuzendutako tailerra. Bertan, birziklatutako materialak erabiliz, ijito-herriaren

Prensa oharra

Nota de prensa



banderak sortuko dira, era horretan, kultura-nortasuna, memoria kolektiboa eta kontzientzia ekologikoa uztartuz.

Ostirala, apirilak 10 | udaletxea | 17:30

Ostiralean, hilak 10, emakume erromaniak izendatzeko ekintza egingo da, Beti Chachipén elkarteak bultzatuta. Proposamenak emakume ijitoen topaketa bat eta testu-instalazio bat konbinatzen ditu espazio instituzional batean. Espazio horrek nazioarteko erreferentziazko hamar izen jasoko ditu, era horretan, emakumeak izendatzeko ekitaldia aitoren-ekitaldi bihurtuz.

Larunbata 11 | Intxaurrondo KE | 17:30

Larunbatean, hilak 11, musika-hizkuntza erromani garaikideetan oinarritutako soinu-topaketa bat egingo da, esperimentazioari eta elektronikari arreta berezia emanez, eta formatuaren helburua kultura entzutea eta ikertzea izango da.

Igandea 12 | Tabakalera | 17:30

Igandean, hilak 12, ikus-entzunezko ekintza bat egingo da: Oroitz vodcasta proiektatuko da. Ahots eta kontakizun erromaniaren artxibo garaikidea da, eta autoirudikapenean jartzen du arreta.

Astelehena 13 | Okendo K.E | 17:30

Astelehenean, hilak 13, hitzean oinarritutako literatura-ekintza bat egingo da: *Las voces* liburuaren aurkezpena. Donostiako liburu-denda batean elkartuko dira, eta elkarrizketa ireki bat egingo da memoriaren eta kultura-transmisioaren inguruan.

Asteartea 14 | Egia Kultur Etxea | 17:30

Programazioaren azken eguna apirilaren 14a izango da, asteartea. Egun horretan Kaldereroen inguruko hausnarketa partekatu bat egingo da; bertan, historikoki erromaniek hirian izan duten presentzia aztertuko da, hain zuzen ere hiri-erritu gisa. Saioan ikus-entzunezko artxiboa, testuinguru-azterketa eta gizarte-erakundearen parte-hartzea uztartuko dira, eta Neurte 2022 txostena ere txertatuko da gogoetarako esparru gisa.

Horrela, Romastea ekimenaren asmoa da kultura-dispositibo egonkor bat izatea, aniztasunari lotutako kultura-politiken eskala handitzeko, elkarrizketa instituzionala indartzeko eta ijitoen kultura Donostiatik nazioarteko esparrura proiektatzeko.

Iñigo García zinegotziaren hitzetan, "lehenengo edizio hau hasiera baino ez da. Asmoa da Romastea pixkanaka hazten joatea eta hiriko kultura-proposamen gisa sendotzen joatea".

Prensa oharra

Nota de prensa



Hala, Udalak indartu egiten du Donostiak kultura-aniztasunarekin, berdintasunarekin eta elkarrekiko errespetuan eta onarpenean oinarritutako bizikidetza eraikitzearekin duen konpromisoa.